



MARIO KART 8 DELUXE TXAPELKETA

1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

- 1.1. Mangamore 2023ko Mario Kart 8 Deluxe (Nintendo Switch) txapelketa aurrez aurre urriaren 15ean, igandea, egingo da 11:00etatik 14:00etara, Zornotza Aretoan (Urbano Larruzea kalea, z/g),
- 1.2. Plazak 16 partaidetara mugatuta daude. Gehieneko inskripzio-kopurua gainditu ondoren, jokalariai erreserba-zerrenda batean sartuko dira, izena emateko hurrenkeran.

Ekitaldia hastean izena eman duen jokalaria bat bertan ez badago erreserba-zerrendako hurrengo pertsonak ordezkatu du. Jokalariaren egiaztapena 11:00etatik 11:15era egingo da. Beranduenez, partidak 11:30etan hasiko dira. Hori dela eta puntualtasuna eskatzen da.

- 1.3. Parte hartzeko gutxieneko adina 12 urtekoa izango da. Txapelketan parte hartu ahal izateko, 16 urtetik beharagoek aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena izan beharko dute. Eranskinean bete behar den dokumentua dago.

Baimen hori posta elektronikoz bidali ahal izango da lagun.eclub.sm@gmail.com helbidera, txapelketa egin aurretik, edo zuzenean eskura eman ahal izango zaie antolatzaileei Zornotza Aretoan, jokalariai egiaztatzen diren bitartean.

Antolatzaileek baimen-orriak emango dituzte Zelaieta Zentroko informazio-gunean, ordu-tegi honetan:

- Urriaren 13an, ostirala, 17:00etatik 21:00etara.
- Urriaren 14an, larunbata, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Bestalde, urriaren 15ean, igandean, zuzenean eskatu ahal izango zaie antolatzaileei Zornotza Aretoan.

- 1.4. Parte-hartzaileak antzokian zehar banatuko dira eta uneoro aretoko langileen eta txapelketako antolatzaileen jarraibideak bete beharko dituzte.

Era berean, txapelketan zehar, parte-hartzaileek besaulkietan eserita egon beharko dute, antolatzaileek hala adierazten dutenean izan ezik.

2. TXAPELKETARI BURUZ

- 2.1. Antolatzaileek jokalarien esku jarriko dituzte aginteak, baina parte-hartzaile bakoitzak bere Nintendo Switch agintea ekarri ahal izango du, baldin eta haririk gabekoa bada.
- 2.2. Txapelketa hasi aurretik parte-hartzaileen eta agintarien egiaztapena egingo da
- 2.3. Txanda-sistema sailkapen-sistema simple baten bidez egingo da, hau da, partida irabazten duen jokalaria sailkatu egingo da.

3. IZEN-EMATEARI BURUZ

- 3.1. Izen-ematea online egingo da, <https://forms.gle/3Z2ytKVc7wsXxvnb7> inprimakiaren bidez, oinarri hauek argitaratzen diren unetik urriaren 14ko 23: 59ra arte (larunbata).

Bestalde, urriaren 15ean, igandean, Zornotza Aretoan izena eman ahal izango da txapelketa 11:00etatik 11:15etara hasi baino lehen.

Izena emateko formularioarekin zalantzak edo arazoak izanez gero, lagun.eclub.sm@gmail.com helbidera mezu elektronikoko bat idatz daiteke.

- 3.2. Formularioan honako datu pertsonal hauek emango dira:

- Izena, abizenak
- Jaiotze-data
- E-maila
- Jokatzean zein *nick*-arekin deitu nahi den

- 3.3. Izen-ematea baieztatzeko, antolatzaileek mezu elektronikoko bat bidaliko dute lagun.eclub.sm@gmail.com e-mailetik formularioan erabilitako helbide elektronikora.

- 3.4. Era berean, izena eman ahal izango da Zelaieta Zentroko Informazio Gunean, sarrerako hallean, ordutegi honetan:

- Urriaren 13an, ostirala, 17:00etatik 21:00etara.
- Urriaren 14an, larunbata, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

4. SARIEI BURUZ

- 4.1. Sariak hurrengoak izango dira:

1. saria: 50€ + domina + opariak
2. saria: 30€ + domina + opariak

Gainera, Domino's Pizzari esker saritutako pertsona bakoitzarentzat sustapen-kode bat egongo da.

Bestalde, opariak merchandising produktuak, mangak, liburuak, Artist Alley-ko artisten sorkuntzak, elikagaiak eta abar izan daitezke.

- 4.2. Ekitaldia amaitutakoan, antolatzaileek harremanetan jarriko dira diru-sariak jasotzeko posta elektronikoko bat bidaliz edo telefonoz.

Sarituak adingabeak badira, izapidea aitarekin, amarekin edo legezko tutorearekin egingo da.

5. ANTOLAKUNTZARI BURUZ

- 5.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, txapelketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolatzaileek.
- 5.2. Antolatzaileek errespetuzkoa eta dibertigarria den partaidetza-testuingurua sustatu nahi du.
- 5.3. Txapelketan izena emateko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez erabiliko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Datuak txapelketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako.
- 5.4. Publizitaterako, txapelketako parte-hartzaileen irudiak (argazkiak, bideoak, etab.) hainbat komunikabidetan erabili ahal izango dira: telebista-programetan, Interneten, egunkarietan, aldizkarietan, etab. Irudi horiek ez dira inola ere helburu komertzialetarako erabiliko. Ez da ordainsari ekonomikorik egongo sustapen-neurri horientatik.
- 5.5. Txapelketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar. Arau bat edo batzuk ez betetzeak lehiaketatik kanporatzea ekar dezake

HARREMANETARAKO BIDEAK:

Zalantzarik izanez gero, mezu elektronikoko bat bidal dezakezu lagun.eclub.sm@gmail.com helbidera edo harremanetan jarri [@lagun_eclub](https://www.instagram.com/lagun_eclub) Instagram kontuan.





BAIMENA
MARIO KART 8 DELUXE

_____ Jaun/Andreak, adinez nagusia,
_____ NAN/AIZ/pasaporte zenbakia indarrean duenak eta _____
telefono zenbakia duenak, _____ aita, ama edo tutorea
izanik adierazten du:

Mario Kart 8 Deluxe txapelketaren oinarriak irakurri ditut eta baimena ematen diot nire semeari/alabari/begi-niniari Mangamore 2023 Amorebieta-Etxanoko Udalak antolatutako japoniar kulturari buruzko jardunaldian, programaren barruan ospatuko den Mario Kart 8 Deluxe txapelketan parte hartzeko. Txapelketa urriaren 15ean (igandea), aurrez aurre egingo da 11:00etatik 14:00etara Zornotza Aretoan.

Era berean, berariaz baimena ematen diot Amorebieta-Etxanoko Udalarari lehiaketan zehar egindako nire semea, alaba edo apopiloaren irudi, argazki, bideo, material, grafiko eta abar guztiak, edo zati bat, barnetik zein kanpotik (egunkariak, aldizkariak, telebista programak, web-orria, sare sozialak) jaso, argitaratu, erreproduzitu eta erabili ahal izateko. Irudi horiek ez dira inola ere erabiliko merkataritza-helburuetarako.

_____ (e)n, 2023ko _____ ren _____ (e)(a)n.

Sinatuta,